

2009/06/02

Ezkio-Itsaso "Guraso eta umeen iritzia eskatu dute Igartubeiti museaon tailer didaktikoak antolatzerakoan"

Larunbatean arratsaldean Igartubeiti Baserri Museoko tailer didaktikoa ospatu zen, orain dela hilabete batzuk egiten ari den bezala. Oraingoan lore lehorren tailerra aurrera eraman zen eta honetan herriko bi umeek parte hartu zuten. Teila batzuk hartu eta hauek apaintzen aritu ziren hezitzaileen eta begiraleen laguntzaz. Bakoi-tzak nahi zuen lorea aukeratu eta hauek moldatu zituzten teilan kokatuz.

Eskulanarekin amaitu ondoren, eta hilabeteko azken asteburua zela kontutan hartuz, Igartu meriendaz gozatzeko aukera izan zuten gaztetxoek, hau arratsaldeko 18:00ak aldera hasi zelarik. Gazta, Igartubeitin bertan egindako sagar zuku naturala, irasagarra... gogoz jan zuten guztiek.

Ekaina

Ekainean zehar ere tailer didaktiko gehiago aurrera eramateko intentzioa dute Igartubeiti Baserri Museokoek, baina hauek ahalik eta hobeto irtetzeko parte hartu duten gurasoen eta umeen iritzia eskatu dute. Horrela, azken asteburuetan galdetegi bat bete izan dute hauek eta erantzunaren arabera hemendik gutxira tailerraren egun zehatzak jakin ahal izango ditugu.

M.Galilea.